

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

1071

IRAGARKIA, 2022ko otsailaren 11koa, Industria Administrazioaren Gipuzkoako lurralde-ordezka-riarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita, lehian beste eskabide batzuk aurkezteko aukera emanez, Soraluze-Placencia de las Armas eta Elgoibar udalerrietan (Gipuzkoa) dagoen Karakate parke eolikorako aurretiazko administrazio-baimenaren eskaera.

Euskal Autonomia Erkidegoan parke eoliko bidez energia eolikitik energia elektrikoa ekoiz- teko instalazioak baimentzeko prozedura arautzen duen maiatzaren 28ko 115/2002 Dekretuak 4. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, Karakate parke eolikorako aurretiaz aurkeztutako administrazio-baimenaren eskaera iragartzen da:

- Kokalekua: Karakate.
- Eskatzailea: Green Capital Development 135 SLU.
- Ukitutako udalerririk: Soraluze-Placencia de las Armas eta Elgoibar (Gipuzkoa).
- Aerosorgailuen kopurua: 2.
- Instalaturako potentzia gordina: 9,6 MW.
- Ukitutako azaleraren poligonalaren koordenatu geografikoak:

Poligonalak	UTM x	UTM y
A	548066	4782613
B	548940	4782020
C	548661	4781605
D	547785	4782199

Hori guztia argitara ematen da, hogeit eguneko epean, iragarki hau 115/2002 Dekretuaren 4. artikuluan aipatzen diren aldizkarietan azken aldiz argitaratu zen egunetik zenbatzen hasita, parke eoliko hori ezarri eta ustiatzeko interesa duten pertsona fisiko edo juridikoek lehian eskabi- deak aurkeztu ahal izan ditzaten, dekretu horren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera, Industria Administrazioaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzan izapidetze elektronikoko plataformaren bidez.

Donostia, 2022ko otsailaren 11.

Industria Administrazioaren Gipuzkoako lurralde-ordezkaria,
AGUSTIN AROSTEGI ARTETXE.